

FITXA METODOLOGIKOA

– PLANGINTZAREN INBENTARIOA (200208)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

INBENTARIOA – Plangintza Orokorren Inbentarioa

Inbentarioak EAEko udalerrien plangintza orokorraren eta plangintza orokorreko hirigintza-jardueraren egoerari buruzko informazioa biltzen eta egoera horren berri ematen du. Horrez gain, plangintza hori ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokitu den islatzen du.

Inbentarioan jasotzen den informazioak jatorri hauek ditu: Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenak eta espedienteak, edo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialetan egindako bilaketak. Hau da jasotako informazioa: plangintza orokorraren dokumentuak —Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak— eta plangintza orokorrean aldaketak egiteko prozesuen faseak onartzeko akordioak; EHLAB txostenaren data; plangintza orokorreko dokumentuei buruzko sententziak.

Inbentarioak eduki hau du:

1. Datuen eguneraketa eta aldizkarietarako estekak, saileko webaren aplikazioan.
2. Plangintza orokorraren egoera eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko egokitzapena islatzen duen planoaren eguneraketa. Egokitzapen-mailari buruzko informazioaren analisia.
3. Plangintza orokorraren egoerari buruzko txostenak egiten ditu.
4. Udalerriak, udalerrien hirigintza-jarduerari buruzko txostenak egiten ditu.

Eragiketaren kodea.

200208 (2018-2022 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistika Planarena)

Erakunde arduraduna.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza.

Parte hartzen duten beste erakunde batzuk.

EUSTAT Euskal Estatistika Erakundea

Foru-aldundiak

Udalak

Gai-arloa.

Azpiegitura estatistikoa

Argitalpen-maiztasuna.

Urtean behin

Eragiketa mota.

Bilketa

Metodologia, datuen jatorriaren arabera.

Administrazio-erregistroetatik eratorritako datuak biltzea. Hauek dira iturri nagusiak: **Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren** jarduera, udal eta foru-aldundiekin izandako komunikazioak eta aldizkari ofizialak.

Helburuak

EAEko udalerrien plangintza orokorraren eta plangintza orokorreko hirigintza-jardueraren egoerari buruzko informazioa biltzea eta egoera horren berri ematea, bai eta plangintza hori ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea egokitu den islatzea ere.

Hirigintza-plangintzaren egoeraren berri emateko eta jendaurrean erakusteko administrazio publikoak duen betebeharra gauzatzea, lege horiek eta lege horiek betetzeak gure gizartearen garapena baldintzatzen dutenez.

Aurrekoari dagokionez, administrazio publikoak hirigintza-arloan duen eskumenaren eremuan, Lege berriak zehaztutako helburuak bete nahi dira. Eskumen hori jasotzen du Eusko Jaurlaritzak onartutako Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, Xedapen eta Printzipio Orokorrei buruzko I. Tituluan, Hirigintzari buruzko printzipio orokorreari buruzko II. Kapituluako 4. artikuluan («Interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa»), 8. artikuluan («Herritarren parte-hartzearen printzipioa») eta 9. artikuluan («Jendaurreko informazioaren printzipioa»).

Bestalde, proiektuaren helburua da Lurralde Antolamenduaren Legeak eta Natura Kontserbatzeko Legeak jasotako antolakuntza moduak eta Natura Babesteko 3/98 Legeak aurreikusitako figurak eta prozedurak garatzeko oinarri izatea.

Ikertu beharreko aldagai nagusiak

Plangintzari buruzko informazioa udalerrika:

- Indarreko plangintza, izapidetze-bidean dagoen plangintza, egokitzapena, datak.

Plangintzarako egokitzapena lurraldeka, funtzio-arloka, eskualdeka

- Udalerri kopurua
- Egokitzapen portzentajea.

Eremuak

Populazio-eremua: Erreferentziako populazio-unitatea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztiak dira.

Eremu geografikoa: Erreferentziako eremu geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak dira; laburpen-taletan honela taldekatzen dira: udalerrri bakoitzaren guztizko datuen arabera, funtzio-arloko, eskualdeka eta lurralde historikoka.

Denbora-eremua: INBENTARIOA Plangintza Inbentarioak jasotzen dituen datuak, t urteari dagozkionak, gehienera jota, informazio horri dagokion urteko urtarrilaren leian jasoak dira.

t urteko urtarrilaren 1ari dagozkion inbentario-datuak, urtero argitaratzen dira eta t urteko abenduan hedatzen dira.

Hedapena

- Argitalpen inprimatua, Udalplanen argitalpenari erantsia. Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza
- Argitalpen elektronikoa-DVDA, Udalplanen argitalpenari erantsia. Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza.
- [Internet: Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze bisorea](#)
- [Internet: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Estatistika Organoaren taulak](#)
- [Internet: Sintesarako taula estatistikoak. www.eustat.es](http://www.eustat.es)